



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 24a

121. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00198. Galdera, Eliza katolikoak bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko higiezinak zaharberritzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jaso dituen laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- 11-24/PES-00277. Galdera, Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00278. Galdera, Martzillako zubian egin beharreko lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00282. Galdera, eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00294. Galdera, "ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00314. Galdera, Segurtasun Batzordea foruzainen kopurua handitze aldera deitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00198. Galdera, Eliza katolikoak bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko higiezinak zaharberritzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jaso dituen laguntzei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Eliza katolikoak bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko higiezinak zaharberritzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jaso dituen laguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko apirilaren 26ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00198 galdera idatzia egin du, Eliza katolikoak 2000tik 2024ra bitarte bere jabetzako eraikinak birgaitzeko dirulaguntzetan jaso duen zenbatekoari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultu-

ra, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Galdera hori dela-eta, Ondare Zerbitzuan 2015etik 2023ra bitarteko epeari buruz eskueran zeuden datuak helarazi zitzaizkion, bai eta jakinarazi ere 2000-2014 epeari buruzko informazioa prestatze-fasean zegoela. Informazio hori prestatuta dagoelarik, jarraian azaltzen dugu.

LABURDURAK

M: Toki entitatea

PI: Elizaren jabetza

PP: Jabetza pribatua

Hori da jakinarazi ahal dudana, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

MUNICIPIO	EDIFICIO	OBRA	PROPIEDAD	AÑO INICIO	AÑO FIN	IMPORTE TOTAL DE LA OBRA / FASE	FINANCIACIÓN
Memoria 2014							
FITERO	Monasterio, claustro	5ª fase	M	2013	2014	759.126,48 €	PROPIA
GALLIPIENZO	Iglesia de San Salvador	interior y cripta	PI	2014	2014	351.501,92 €	PROPIA
TUDELA	Catedral	claustro, 1ª fase	PI	2013	2014	630.459,80 €	PROPIA
IBARGOITI (Vesolla)	Iglesia de la Purificación		PI	2014	2014	344.557,54 €	PROPIA
PAMPLONA	Catedral, portada de San José		PI	2014	2014	108.157,69 €	FPCPH
Memoria 2013							
FITERO	Monasterio, claustro	4ª fase	M	2012	2013	959.532,04 €	PROPIA
OLITE	Iglesia de San Pedro	torre gótica	PI	2012	2013	1.022.406,00 €	PROPIA
PAMPLONA	Catedral	pináculos, 2ª fase	PI	2012	2013	847.057,54 €	PROPIA
Memoria 2012							
ESTELLA-LIZARRA	Iglesia de San Pedro de la Rúa	interior, 2ª fase	PI	2011	2012	1.960.898,99 €	PROPIA
FITERO	Monasterio, claustro	3ª fase	M	2011	2012	904.628,19 €	PROPIA
IZAGAONDOA (Guerguit Iglesia de San Martín			PI	2012	2012	321.344,98 €	PROPIA
PAMPLONA	Catedral	Pináculos	PI	2011	2012	872.111,14 €	PROPIA
ESTERIBAR	Puente de la Rabia, Zubiri		M	2012	2012	109.863,52 €	PROPIA
LUNBIER	Puente de las Cabras		M	2011	2012	290.371,29 €	FPCPH
Memoria 2011							
ESTELLA-LIZARRA	Iglesia de San Pedro de la Rúa	interior, 1ª fase	PI	2010	2011	1.042.179,08 €	PROPIA
UJUÉ	Iglesia de Santa María	portada sur y adecuación salas	PI	2011	2011	251.586,36 €	PROPIA
PAMPLONA	Ciudadela	sector de Santa Isabel	M	2010	2011	2.340.255,19 €	FPCPH
PAMPLONA	Ciudadela	sector de Santa Ana	M	2010	2011	1.775.561,93 €	FPCPH
UJUÉ	Iglesia de Santa María	7ª fase, casa parroquial	PI	2009	2011	1.831.333,29 €	FPCPH

Memoria 2010									
CARCASTILLO	Monasterio de La Oliva	fachada lateral sur	PI	2009	2010	205.916,14 €	PROPIA		
ESTELLA	Iglesia de San Pedro de la Rúa	cubiertas y fachadas	PI	2009	2010	1.738.005,39 €	PROPIA		
ESTELLA	Iglesia de San Pedro de la Rúa	portada norte	PI	2010	2010	133.799,06 €	PROPIA		
OLITE	Iglesia de San Pedro	torre, 1ª fase	PI	2010	2010	99.984,33 €	PROPIA		
PAMPLONA	Catedral	pináculos, andamiaje	PI	2010	2010	138.398,35 €	PROPIA		
URRAÚL ALTO	Iglesia de Santa Fe	cubierta	PI	2009	2010	260.235,54 €	PROPIA		
FITERO	Monasterio, claustro	2ª fase, ala este	M	2009	2010	697.939,32 €	FPCPH		
PAMPLONA	Ciudadela	sector de Santa Clara	M	2009	2010	1.884.182,88 €	FPCPH		
RONCESVALLES	Albergue de peregrinos	2ª fase, estructura	PI	2009	2010	2.506.549,01 €	FPCPH		
RONCESVALLES	Albergue de peregrinos	3ª fase, adecuación	PI	2009	2010	2.822.143,36 €	FPCPH		
UJUÉ	Iglesia de Santa María	6ª fase, interior	PI	2009	2010	1.064.223,76 €	FPCPH		
Memoria 2009									
CARCASTILLO	Monasterio de La Oliva	torre y fachada	PI	2008	2009	856.973,93 €	PROPIA		
SANGÜESA	Iglesia de Santa María	portada	PI	2008	2009	680.000,00 €	PROPIA		
SORLADA	San Gregorio Ostiense	casa de la cofradía, adecuación	PI	2008	2009	960.398,65 €	PROPIA		
ARTAJONA	Iglesia de San Saturnino	interior, 4ª fase	PI	2008	2009	944.040,46 €	FPCPH		
ARTAJONA	Iglesia de San Saturnino	urbanización	M	2008	2009	785.044,21 €	FPCPH		
FITERO	Monasterio, claustro	1ª fase, dormitorio viejo y ala este	M	2008	2009	664.070,52 €	FPCPH		
RONCESVALLES	Albergue de peregrinos	1ª fase, derribo	PI	2008	2009	884.014,83 €	FPCPH		
Memoria 2008									
ARIA	Hórreo de casa Apat		PP	2008	2008	129.562,71 €	PROPIA		
ARIBE	Puente sobre el río Irati		M	2007	2008	320.585,01 €	PROPIA		
GALLIPIENZO	Iglesia del Salvador		PI	2007	2009	322.388,90 €	PROPIA		
GARÍNOAIN	Ermita del Santo Cristo de Cataláin	2ª fase	PI	2007	2008	322.890,03 €	PROPIA		
SORIADA	San Gregorio Ostiense	casa de la cofradía, consolidación	PI	2007	2008	939.305,21 €	PROPIA		
TAFALLA	Convento de Recoletas		M	2008	2008	147.508,13 €	PROPIA		
UJUÉ	Iglesia de Santa María	5ª fase	PI	2007	2008	907.296,56 €	FPCPH		

Memoria 2007									
ARIA	Hóreos de casa Jamar y de casa Etxeberri	PP	2007	2007	134.741,92 €	PROPIA			
CARCASTILLO	Monasterio de La Oliva	PI	2006	2007	887.321,75 €	PROPIA			
CARCASTILLO	Monasterio de La Oliva	PI	2007	2007	1.042.469,78 €	PROPIA			
GARINOAIN	Ermita del Santo Cristo de Cataláin	PI	2006	2007	308.147,36 €	PROPIA			
TUDELA	Catedral	PI	2007	2007	159.993,18 €	PROPIA			
ARTAJONA	Iglesia de San Saturnino	PI	2006	2007	234.421,63 €	FPCPH			
ARTAJONA	Iglesia de San Saturnino	PI	2007	2007	612.270,21 €	FPCPH			
Memoria 2006									
CIRAUQUI	Puente sobre el río Salado	M	2006	2006	144.089,79 €	PROPIA			
ESTELLA-LIZARRA	Iglesia de Santa María Jus del Castillo	PI	2005	2006	272.551,47 €	PROPIA			
IZA (Lete)	Monasterio de Yarte, Lete	PP	2005	2006	123.442,29 €	PROPIA			
CIRAUQUI	Puente sobre el río Salado	M	2006	2006	119.997,97 €	FPCPH			
LOS ARCOS	Puerta de Castilla, restauración	M	2006	2006	119.928,32 €	FPCPH			
TUDELA	Catedral	PI	2005	2006	1.521.812,29 €	FPCPH			
TUDELA	Catedral	PI	2005	2006	1.602.285,08 €	FPCPH			
TUDELA	Catedral	PI	2006	2006	938.571,92 €	FPCPH			
UJUÉ	Iglesia de Santa María	PI	2006	2006	485.377,33 €	FPCPH			
Memoria 2005									
ESTELLA-LIZARRA	Iglesia de Santa María Jus del Castillo	PI	2004	2005	658.952,36 €	PROPIA			
UHARTE ARAKIL	Iglesia de Santa María de Zamarce	PI	2005	2005	114.839,76 €	PROPIA			
UHARTE ARAKIL	Iglesia de Santa María de Zamarce	PI	2005	2005	124.291,58 €	PROPIA			
RONCESVALLES	Casa de los Beneficiados	PI	2004	2005	400.931,88 €	PROPIA			
TUDELA	Catedral	PI	2004	2005	802.138,30 €	PROPIA			
VILLAMAYOR DE MONJA	Castillo	M	2005	2005	232.632,29 €	PROPIA			
TUDELA	Catedral	PI	2003	2005	1.788.956,18 €	FPCPH			
UJUÉ	Iglesia de Santa María	PI	2005	2005	591.082,08 €	FPCPH			

Memoria 2004									
ARTAJONA	Iglesia de San Saturnino	muros y portada norte	PI	2003	2004	567.214,14 €	2004	PROPIA	PROPIA
UHARTE ARAKIL	Iglesia de Santa María de Zamarce		PI	2002	2004	421.008,40 €	2004	PROPIA	PROPIA
IZA (Lete)	Monasterio de Yarte, Lete	3ª fase	PP	2004	2004	130.053,69 €	2004	PROPIA	PROPIA
IZA (Lete)	Monasterio de Yarte, Lete	2ª fase	PP	2003	2004	115.419,98 €	2004	PROPIA	PROPIA
VILLAMAYOR DE MONJA Castillo		consolidación	M	2004	2004	359.994,18 €	2004	PROPIA	PROPIA
ZÚÑIGA	Ermita de Arquijas	restauración de cubiertas	M	2004	2004	119.799,29 €	2004	PROPIA	PROPIA
TUDELA	Catedral	capilla del Espíritu Santo	PI	2002	2004	1.239.667,73 €	2004	FPCPH	FPCPH
UIJÉ	Iglesia de Santa María	torre y galería	PI	2003	2004	409.553,94 €	2004	FPCPH	FPCPH
Memoria 2003									
ESTELA-LIZARRA	Iglesia de Santa María Jus del Castillo	2ª fase	PI	2002	2003	385.955,85 €	2003	PROPIA	PROPIA
RONCESVALLES	Casa de los Beneficiados	2ª fase	PI	2003	2003	527.656,31 €	2003	PROPIA	PROPIA
TUDELA	Convento de Dominicas	fachada, 4ª fase	PI	2002	2003	491.956,52 €	2003	PROPIA	PROPIA
TUDELA	Catedral	desmontado del pavimento y exc	PI	2002	2003	1.399.444,57 €	2003	FPCPH	FPCPH
Memoria 2002									
CABANILLAS	Iglesia de San Juan de Jerusalén	4ª fase	PI	2001	2002	259.418,59 €	2002	PROPIA	PROPIA
CIRAUQUI	Puente de Urbe		M	2001	2002	104.331,06 €	2002	PROPIA	PROPIA
ESTELA-LIZARRA	Iglesia de Santa María Jus del Castillo	1ª fase	PI	2001	2002	507.341,42 €	2002	PROPIA	PROPIA
NOÁIN (VALLE DE ELORZ Acueducto		1ª fase	M	2001	2002	404.396,66 €	2002	PROPIA	PROPIA
RONCESVALLES	Casa de los Beneficiados		PI	2002	2002	199.998,81 €	2002	PROPIA	PROPIA
VILLATUERTA	Puente medieval		M	2001	2002	101.791,53 €	2002	PROPIA	PROPIA
BAZTAN (Zozaiá)	Torre Jauregia		PP	2001	2002	418.483,27 €	2002	PROPIA	PROPIA

Memoria 2001		En pesetas convertido a euros				
DONAMARIA	Torre Jauregia	2ª fase	2000	2001	352.647,58 €	PROPIA
DESOJO	Picota		2000	2001	321.386,98 €	PROPIA
JAVIER	Iglesia de San Martín, Torre de Peña		2000	2001	189.388,84 €	PROPIA
RONCESVALLES	Edificio Itzandegia		2001	2001	125.705,71 €	PROPIA
Memoria 2000		En pesetas convertido a euros				
CABANILLAS	Iglesia de San Juan de Jerusalén	3ª fase	2000	2000	172.233,72 €	PROPIA
NOÁIN (VALLE DE ELORZ)	Acueducto	10ª fase	1999	2000	240.518,44 €	PROPIA
PAMPLONA	Palacio del Condestable		2000	2000	150.241,45 €	PROPIA
RONCESVALLES	Casa prioral	restauración de cubiertas, 2ª fase	1999	2000	391.829,25 €	PROPIA
RONCESVALLES	Casa prioral	3ª fase	2000	2000	529.970,02 €	PROPIA
VILLATUERTA	Ermita de San Miguel		2000	2000	109.368,68 €	PROPIA
LÓNGUIDA (Zarikieta)	Iglesia de San Martín		2000	2000	107.780,14 €	PROPIA

11-24/PES-00277. Galdera, Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Bustince jauna Nair Cener-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Cristina López Mañero andreak Bustince jauna Nair Center-eko zuzendari zientifikoa ez izateari buruzko galdera idatzia egin du (11-24/PES-00277). Hona Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digtaleko kontseilariaren erantzuna:

Zure informazio-eskaerari dagokionez, joan den maiatzaren 24an Legebiltzarrean egindako

agerraldian helarazi nizun informazioa –galderari eman nion lehengo erantzunera– lotzen natzaio.

Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digtaleko kontseilari naizen aldetik, eskerrak eman nahi dizkiot Bustince jaunari egin duen lanagatik eta Nafarroak adimen artifizialeko zentro hori izateko egin duen ahaleginagatik.

Bustince jauna adimen artifizialean ospe handia duen pertsona da, eta, Nafarroako unibertsitateetako beste ikerketa-talde batzuekin eta NAIR Center-ekin lankidetzan jarraituko du alde edo moldez.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digtaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00278. Galdera, Martzillako zubian egin beharreko lanei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak Martzillako zubian egin beharreko lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin duen galdera

idatzia dela-eta (11-24/PES-00278), hauxe da Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna:

Oraingoz ezin dut erantzuna gehiago zehaztu, alternatiben azterketa egiten ari baikara oraindik.

Azterlana amaitzen denean, departamentu honek parlamentariari azterlana eman ahal izanen dio.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 18an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00282. Galdera, eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak eguzki-panelak paratzeko dirulaguntza-eskariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 7ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Maria Elizalde Urmeneta andreak eguzki-plakak instalatzeko dirulaguntzetarako eskaerei buruzko galdera idatzia egin zuen (11-24/PES-00282), eta gero Mahaiari errekeritu zion 11-24/PES-00282 galdera idatziaren erantzuna igor zekion. Hona Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna:

Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren urriaren 15eko 121E/2021 Ebazpenaren bidez onetsi zen deialdi hau: "Autokontsumorako eta energia-iturri berriztagarrien bidez biltegitratzeko laguntzak, baita bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeko ere". Horren arabera, 10.338.724,09 euroko gastua egitea baimendu zen gastu-aurrekontuko 820001 82500 7701 425203 partidaren kargura [PEP: E-21-000384] eta [PEP: E-21-000385], 2022an, 2023an eta 2024an deialditik heldu diren konpromisoak

artatzeko behar adinako kreditua egotearen baldintzapean.

Deialdiko hirugarren oinarri arautzailearen arabera: Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2023ko abenduaren 31n bukatuko.

Deialdia 2021eko azaroaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenez, eskaerak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 10ean hasi zen.

2021ean, autokontsumoko 8,19 MW instalatu ziren, 48 espedienteri dagozkienak; 2021ean, 32,5 MW, 1.095 espedienteri dagozkienak; 2022an, 62,61 MW, 4.296 espedienteri dagozkienak, eta 2023an, 67,52 MW, 3.307 espedienteri dagozkienak.

Halatan, 2021etik gaur arte 13z biderkatu dugu Nafarroan instalatutako autokontsumoaren potentzia. 2021an, instalatutako potentzia 8,19 MW-koa zen, eta gaur egun (2024ko abuztua) 201 MW-koa da. 2024an, autokontsumoa Nafarroan kontsumitutako energia elektrikoaren % 3 da.

Nafarroak 2021etik aitzina kudeatu ditu autokontsumorako eta energia berriztagarriko iturriekiko biltegitratzerako MRR funtsetatik heldu diren laguntzak. Gainera, % 30era bitarteko kenkari fiskalak aplikatu dira.

2022ko maiatzetik uztailera bitarte egindako lehenbiziko emakida-ebazpenekin eta eskaerak jaso ondoko sei hilabeteetan egindakoekin eskabideak aurkezteko epeko lehenbiziko egunean jasotakoak soilik aintzat hartu ahal izan ziren; hau da, 2021eko azaroaren 10ekoak.

Programa	BDNS	Nº instancia	Fecha y hora
Programa 1	590074	1260216	10/11/2021 11:40
Programa 2	607030	1259378	10/11/2021 10:26
Programa 3	607034	1455366	24/12/2021 11:33
Programa 4	607045	1255201	10/11/2021 03:02
Programa 4	607046	1255478	10/11/2021 06:43
Programa 5	607047	1254829	10/11/2021 00:20
Programa 5	607048	1254871	10/11/2021 00:27
Programa 6	607049	1331999	24/11/2021 13:58
Programa 6	607052	1480337	31/12/2021 19:27

Deialdiak halako arrakasta izan zuenez gero (inoiz ez bezalakoa, zeren eta epea bukatu zenean 11.924 eskaera aurkeztu baitziren), eta ikusita eskaerak aurkezteko epeko bigarren egunetik jasotakoak ezin izanzen zirela beharbada aintzat hartu, Nafarroak lehenbiziko kreditu-gehikuntza eskatu zion IDAE-Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari. Horretarako, aurrena, Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuak jarraipen-txosten bat egin zuen 2022ko uztailean; txostenean, jasotako eskaerak eta eskuragarri zegoen kredituarekin aintzat hartu ahal izan zirenak zertan ziren azaltzen zen, eta lehenbiziko gehikuntza bat eskatzen zen, 70 milioi eurokoa, eta justifikatu egiten ziren ordura arte aintzat hartu gabeko eskaerak eta epea bukatu bitarte jasotzen ahal zirenak. Txosten horren ondotik, eta IDAEk horretarako taxututako plataforman txostena abalatzten zuten datuak bete ondorik, 2022ko irai-

laren 6an, autokontsumoari eta energia-iturri berriztagarrien bidez biltegitratzeari lotutako pizgarrien programako aurrekontua 12.235.798 euro handitzea eskatu zen. Argi dago zergatik ez ziren 70 milioi horiek eman: IDAEk lehen aurrekontu-gerakin bat dauka, jasotako gehikuntza-eskaera guztien artean banatzen duena, baina ezin du inolaz ere autonomia-erkidegoek eskatutako zenbateko osoa eman, horien baturak baliagarri dagoen zenbatekoa gainditzen zuelako. Azkenik, 2022ko urrian, 12.235.798 euroko gehikuntza onartu zuen IDAEk, eta Nafarroako Gobernuak berretsi.

Halere, eskatutako gehikuntza jaso arte, Foru Komunitateko Administrazioak 2.168.046,58 euro ematen jarraitu zuen hirugarren (2023ko otsaila) eta laugarren (2023ko apirila) emakida-ebazpenen bidez, honako data hauek bitarte jasotako eskaerak hartu zituztenak:

Programa	BDNS	Nº instancia	Fecha y hora
Programa 1	590074	1261554	10/11/2021 13:37
Programa 2	607030	1289466	16/11/2021 16:36
Programa 3	607034	295694	07/03/2022 16:59
Programa 4	607045	1257786	10/11/2021 08:52
Programa 4	607046	1259625	10/11/2021 10:50
Programa 5	607047	1254829	10/11/2021 00:20
Programa 5	607048	1254921	10/11/2021 00:37
Programa 6	607049	285825	04/03/2022 13:41
Programa 6	607052	224417	22/02/2022 07:37

Jasotako lehenbiziko gehikuntza Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren maiatzaren 29ko 132E/2023 Ebazpenaren bidez ezarri zen gure Foru Komunitatean. 2022ko urritik 2023ko maiatzera bitarte, Foru Komunitateko Administrazioak egin behar ziren izapideak egin zituen jasotako aurrekontu-gehikuntza ezarri ahal izateko eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko; hartara, jaso baina aintzat hartu ezin ziren eskaerak aintzat hartu eta dirulaguntzak emateko moduan egon zen. Bitartean, eta kontuan hartuta eskatutako gehikuntza 2022ko urriaren 21etik egon zela for-

malki baliagarri, berriz abiarazi zen aurrekonturik ez zegoelako ordura arte aintzat hartu ezin izan ziren eskaerak ebaluatzeko prozesua; hau da, 2021eko azaroan jasotako eskaerak.

Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 181E/2023 Ebazpenaren bidez, eta aurrekonturik ez zegoelako aintzat hartu ez ziren eskaerak zazpi hilabetez ebaluatu eta gero, laguntzen bosgarren emakida ebatzi zen (9.151.080,32 euro), halako moldez non data hauek bitarteko eskaerak bete baitziren:

Programa	BDNS	Nº instancia	Fecha y hora
Programa 1	590074	2022/92794	25/01/2022 19:05
Programa 1	607026	2023/487493	14/04/2023 17:33
Programa 2	607030	2022/74240	21/01/2022 10:43
Programa 2	607032	2023/420954	29/03/2023 21:04
Programa 3	607034	2023/472794	12/04/2023 11:40
Programa 3	607040	2023/332590	14/03/2023 13:04
Programa 4	607045	2022/48460	17/01/2022 10:59
Programa 4	607046	2022/53400	18/01/2022 9:24
Programa 5	607047	2022/463393	11/04/2022 13:14
Programa 5	607048	2022/492917	20/04/2022 10:43
Programa 6	607049	2022/383879	24/03/2022 18:32
Programa 6	607052	2022/224417	10/05/2022 00:33

Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren urriaren 30eko 344E/2023 Ebazpenaren bidez laguntzen seigarren emakida ebatzi zen (1.869.942,67 euro), halako moldez non data hauek bitarteko eskaerak bete baitziren:

Programa	BDNS	Nº instancia	Fecha y hora
Programa 1	590074	2022/355752	19/3/2022 19:45
Programa 1	607026	2023/1113638	17/08/2023 12:33
Programa 2	607030	2022/179753	11/02/2022 20:23
Programa 2	607032	2023/1138022	24/08/2023 10:51
Programa 3	607034	2023/1274476	20/09/2023 11:32
Programa 3	607040	2023/332590	14/03/2023 13:04
Programa 4	607045	2022/81439	24/01/2022 08:45
Programa 4	607046	2022/83666	24/01/2022 12:26
Programa 5	607047	2022/463393	11/04/2022 13:14
Programa 5	607048	2022/504020	21/04/2022 20:49
Programa 6	607049	2022/576963	06/05/2022 14:13
Programa 6	607052	2022/607208	13/05/2022 10:45

2023ko urrian, arestiko puntuan azaldutako emakidaren ostean, berriz agortu zen laguntzak ematen jarraitu ahal izateko baliagarri zegoen kreditua, eta beste gehikuntza bat eskatu zen 2023ko azaroan. IDAEk berriz adierazi zien erkidegoei eskatu beharreko zenbatekoa, programa guztieta-ko eskaerak aintzat hartzeko beharrezkoa baino zenbateko txikiagoa.

Kasu horretan, Foru Komunitateari beste gehikuntza bat eman zitzaion (11,3 milioi euro), 2024ko ekainean onetsi zena Industriaren, Ener-

giaren eta S3 Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren 1804E/2024 Ebazpenaren bidez.

Azkenik, eta gehikuntza-eskaerei dagokienez, kontuan hartuta jasotako gehikuntzak ez zirela aski izanen eskaerak aurkezteko epea bukatzen zen egunera arte jasotako eskaera guztiak aintzat hartzeko (2023-12-31), IDAeri beste aurrekontu-gehikuntza bat eskatu zitzaion, azkena, eta eskatutako 32 milioi baino gehiagotik 2,3 milioi eman zizkion Nafarroari IDAEk.

CCAA	Fecha solicitud	Total Solicitado C7 (€)	Total Solicitado C31 (Generación) (€)	Total Solicitado C8 (€)	Total Solicitado C31 (Almacenamiento) (€)	TOTAL Solicitado C7+C8+C31 (€)
Andalucía	29/05/2024	0	72.020.061	0	4.291.530	76.311.591
Canarias	31/05/2024	0	16.368.496,70		16.601.808,19	32.970.304,89
Cantabria	31/05/2024	0	1.450.000	0	165.000	1.615.000
Cataluña	31/05/2024	0	223.060.000		29.860.000	252.920.000
Comunitat Valenciana	30/05/2024	0	1.607.887	0	0	1.607.887
Extremadura	31/05/2024	0	38.174.440,53	0	4.060.803,97	42.235.244,50
Galicia	31/05/2024	0	4.500.000	0	0	4.500.000
Madrid	31/05/2024	14.193.101	26.947.148		10.869.157	52.009.406
Navarra	23/05/2024	0	28.286.635,79		4.359.897,89	32.646.533,68
País Vasco	21/05/2024	0	7.690.699,74	0	2.482.579,52	10.173.279,26
Rioja, La	31/05/2024	0	6.720.780		430.112	7.150.892
TOTAL		14.193.101	426.826.148,76		73.120.888,57	514.140.138,33

Bukatzeko adierazi beharra dago ezen jasotako eskaeren erantzuna baliagarri dagoen aurrekontuaren arabera dela, egin zen lehenbiziko galdera parlamentarioan adierazi bezala.

2024an zehar, emakida-ebazpenak ematen jarraituko dugu, baliagarri dagoen kreditu agortu arte.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 11n

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00294. Galdera, "ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko partidari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak "ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko partidari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak "ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planaren partidaren exekuzioari buruzko galdera idatzia aurkeztu du (11-24/PES-00294). Hona Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Ogasunaren atarian daude eskuragarri (izan ere, informazio hori publikoa da) 'ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan' helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana" izeneko partidaren exekuzioari buruzko kontabilitatearen xehetasuna, gastua, jarduketak eta falta diren urteetarako programazioa (nextna-Gardentasuna atala-"betetze maila" apartatua-proiektuak eta kontabilitateari buruzko informazioa); honako esteka honetan, hain zuzen ere:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/ekonomikoa/suspertze-eralditze-eta-erresilientzia-plana-hileko-informazioa>

Galderako partidaren kontabilitateari eta jarduketei buruzko informazioa hileroko eguneratzen da, eta esteka horretan dago eskuragarri.

Hori da jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215 artikulua xedatzen dena betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 16an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00314. Galdera, Segurtasun Batzordea foruzainen kopurua handitze aldera deitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Segurtasun Batzordea foruzainen kopurua handitze aldera deitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 28ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00314). Hona Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren hariara ematen dion informazioa:

1) Zergatik dago geldirik departamentuak Foruzaingorako iragarri zuen lan publikoaren azken eskaintza?

Hasiera batean Lan Publikoaren Eskaintzan jaso ziren Foruzaingorako postuak erretiratuak izan ziren egitarautik, aurreikusten baitzen ezen, 2024. urte honen bukaera-partean, eta Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan gaur egun prestakuntza jasotzen ari diren ehun izangaiak zerbitzura pasatzean, Foruzaingorako Segurtasun Batzordeko akordioan ezartzen diren 1.200 agenteak baino gehiago izanen dituela.

2) Departamentuaren ustez, 1.200 kiderekin posible al da Foruzaingorako bete ahal izatea Nafarroako erreferentziako polizia den aldetik ordenamendu juridikoak aitortzen dizkion eskumenak?

Nafarroan erreferentziako polizia den aldetik, Segurtasun Batzordearen 2009ko erabakian ezarritako langile kopurua baino handiagoa behar da ordenamendu juridikoaren arabera dagozkion eskumenak betetzeko.

3) Eskatu al du departamentuak Segurtasun Batzordearen deialdia egin dadin 2009an hitzartutako kide-kopurua handitzea negoziatzeko? Baiezkoan, noizko aurreikusten da Segurtasun Batzordearen bilkura hori?

Eskatu da, eta udazken honetan egitea aurreikusten da.

4) Departamentuaren ustez, gutxienez ere 1.800 kide beharko al lirateke herritarren segurtasunarekin, ordena publikoarekin, trafiko eta bide-segurtasunarekin, ingurumenarekin, ikuskizunekin, zibersegurtasunarekin, polizia judizialarekin eta abar lotutako eskumenak oso-osorik betetzeko?

Orain arte egindako zenbatespenak indarrean dagoen eskumen-egoeran oinarritzen dira.

5) Departamentuak ba al du asmorik Segurtasun Batzordearen baitan kopuru zehatz bat planteatzeko Foruzaingoraren plantilla handitzearen negoziatioan, halako moldez non eskumen horiek oso-osorik bete ahal izanen dituen?

Bai, baina zifra hori oraindik ez dago itxita. Giza baliabideen kudeaketa giltzarri dugu Gobernu honek Foruzaingorarekiko duen konpromisoan. Alde horretatik, badakizue Gobernuak apustu egiten duela postu-kopurua finkatu eta indartzearen alde. Ildo horretatik erdietsi du gaur egun Foruzaingorak bere historiako foruzain kopururik handiena.

Indartze-ekimen horrek jarraipena dauka legegintzaldi honetan, zeinetan erronkatzat baitugu kidegoaren tamaina egungo premietara doitzea, bai jardunaren aldetik, bai postu-berritzearen eta erretiro-hartzearen aldetik ere, halako moldez non jardun-eremu desberdinetan sortzen diren beharrei erantzuteko moduko eskuarteak lortuko baita. Horretan dihardu Departamentuak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 13an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

